

noaua

**EROsakopoa, Puntapaxeko
sorginaren eskutik**

**Buruntzaldeko
Gazte Sortzaileak batzeko
ekimena abiarazi dute**

**Ezohiko San Praixkuak,
iruditan**



**Usurbilgo 29 entitate
batu dira Euskaraldira**



NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:
09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaa.eus

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ALOKAIRURAKO PISUAK BEHAR DIRA,
ESKAERA HANDIARENGATIK!

ALOKAIRU SEGURUA

Zure etxerako inkilino bikaina
aurkituko dugu,
12 hilabeteko errenta bermatua.

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORTZETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

noaqa

jarraitu gure sare sozialak



www.noaqa.eus



Albisteak iruditan

Kirol urte berrirako egokitzapenak Kiroldegian

K irol ikastaroak abiatzarekin batera, jende pilaketak saihestu eta erabiltzaileen joan etorria errazteko Oiardon eginiko zenbait egokitzapenen berri eman du Usurbilgo Udalak: zirkulazio marka berriak jarri eta txandak egokitu dituzte.

Igerilekuko ikastaroak egin artean “gainerako erabiltzaileen txandarik ez eskaintzea erabaki dute, aldagelen erabilerara mugatzeko asmoz”.

Txandak berrantolatu dituzte. Erabiltzaileak hiru multzoetan banatuak dituzte, “igerilekuetakoak, ikastaroetakoak eta gimnasiokoak”. Bakoitza kolore, aldagela eta komun bereziak izango dituzte. “Taldea bakoitza modu independentean ibiltzea izan dute helburu. Kartelak berriak eta koloretako markak jarri dituzte lurrean, bakoitzak nondik joan behar duen eta zein espazio erabil ditzakeen jakin



Erabiltzaileak hiru multzotan banatuak dituzte, “igerilekuetakoak, ikastaroetakoak eta gimnasiokoak”.

dezan. Talde bakoitzak erabil ditzakeen aldagelak eta komunak ere dagokion ko-

lorea duen karteekin adierazi dira”, Udaketik zehaztu duenez.

Laburrean

11 kasu eman ziren iragan astean

Iragan aste osoan 11 kasu Usurbilen, aste bete lehenago 24. Beherakada nabarmena beraz. Urriaren 4ra arte 87 Covid19 kasu izan dira herrian martxoaz geroztik, Osasun Sailaren arabera.

Gripearen aurkako txertaketa

Urriaren 13tik aurrera hasiko dira jartzen gripearen aurkako txertoa, bereziki arrisku taldeei. Aste hasiera honetatik adineko egoitzetan. Covid19 eta gripearen infekzio bikoitz arriskua saihestu nahi dute.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaia

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Ugaitz Agirre Zapirain

Lau hormen artean bizidela suposatzen bada ere, hormarik ez da ikusgarri. Soilik liburuen bizkarrak: egileak eta izenburuak. Orotara egon daitezke milaka, liburuak eta liburuak orpoz-orpo, zer kontatuko desiran. Eta denaren epizentroan, mahai karratua: gaztainondo egurra, bernizaren distira. Leku pribilegiatua idazlearen egiteko forma emateko.

Harrokeria ariketa litzateke esatea liburu haien esaldi guztiak buruz dakizkiela. Ez da hain makina, nahiz eta berak halakorik sinatuko lukeen. Halere, dakizkien hiruzpalau dozena erdierkin aski eta sobera du bere lagunarteko hizketak erreferentzia sasi-intelektualez betetzeko. Eta Sherlocken dedukzio guztiak buruz esateko gai baldin bada ere, ezgauza da bere inguruan geratu berri den lagun arteko ezin ikusia ulertzeko. Are gutxiago alboan duen txikitako adiskideak bizi duen gurutze-bidea susmatzeko. Giltzapetu baitzen liburuetako paradisu eta infernuek osatzen duten bunker isolatuan. Sikira alergi izango balio errealitateari bere distantziamendu soziala justifikatzeko aldera... Seguru izango lukeela erantzun aproposen bat halako auto-

Literazidua



“Harrokeria ariketa litzateke esatea liburu haien esaldi guztiak buruz dakizkiela”.

UGAITZ AGIRRE

“Bere ezinegonean, irakurtzen zituen kritika guztiei erantzuna bilatzen hasi zen: bere bunkerrean”

reri edota bestelakori irakurri ziona aldizkari prestigiotsuak egindako elkarrizketan.

Hala, sare sozialetan bere proiektuaren berri eman zuen: mundu berriaren oinarriak ipiniko zituen Teogonia idatziko zuen. Jainko-jainkosa berriak diseinatuko zituen: ekonomia-rena, egoarena, miseria-rena, gezur-rena, garapen-rena, informatika-rena, joko-rena, droga-rena, pornografi-rena, duintasun-rena (hau jainko txiki bat edo heroi marjinatu bat, oraindik definitzeko) eta gizartearen ezaugarri denak irudikatuko

zituzten bestelako dibinitateak. Metropoliko etxe-orratz bat izango zen euren Olinpo eta hiritarrek debekatua izango zuten hara sartzea. Soilik jende jakina, maila batera iristen zirenak gizarte espektakular eta turbokapitalistan: g-puntuak galdu ez duten gizakiak.

Besteak postaletako bertsio negatiboarekin bizi behar harko ziren: Teologia berrian jainko-jainkosen kapritxoak eta desirak euren tenpluetan aseko zituzten. Kanonaren neurrietara hesitutako izakiak, eguneko buru-markutasuna gaueko desfasarekin erregulatuz, eta jainkoek euren zerbitzuengatik eskertuko zituzten egoki ikusten zutenean bat-bateko mirariak sorraraziz.

Lehen bertsioa eskuragarri jarri zuenean, kritika uholdeak harrapatu zuen. Hura ez zen inondik inora errealitatearen erradiografia duin bat, soilik

handiusteko idazle marjinal baten burutazio eroak bere desio frustratuak betetze aldera. Kalera ateratzeko! Ikus zezala bere begi propioekin zer zegoen ezer ikusten ez zuen tokian, eta orduan ohar-tu behar harko zuela idatzitako guztia fantasia ipuin bat besterik ez zela. Agertzen ziren istorioak, paisaiak, pertsonaiak unibertso paralelo batean bizi ziren.

Bere ezinegonean, irakurtzen zituen kritika guztiei erantzuna bilatzen hasi zen: bere bunkerrean. Oin-oharrez bete zuen izkribua. Esaldi bakoitzak zuen berea: halako x autorearen y liburuko n orrialdean agertzen den egoeraren justaposizioa da, bestelako hura g autorearen t artikuluko f orrialdeko aipamena da...

Erreferentzia baten bila, goiko apaleko liburua eskuratu nahian, oreka galdu eta bizkarrez erori zen halako zorte txarrekin, non hartu liburuak (masa aipagarri-bera) kopetan jo eta sekulako ebakia egin zion.

Egunak pasa ziren gertakari hartatik. Inork ez zuen faltan botatzen idazlea, zeina hilik, liburu artean lurrean ziplo aurkitzen zen. Gaur polizia agertu denean, odol arrastodun liburu preso eraman dute idazlearen hiltzaile izatea leporatuta.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Ika-mika

Covid-19a eta zentsura euskal prentsan

Egun bizi dugun krisi egoera larria dela ez dago inongo zalantzarik, horren guztiaren atzean dagoenaren inguruan iritzi erabat ezberdinak egon arren. Batzuentzat Pandemia den bitartean, hau da, osasun-krisi soila besterik ez; beste batzuentzat Plandemia oso bat da, oraindik amaitu gabea, baina gero eta argiago atzemana daitekeena.

Bada jarraian duzuen testua aipatutako gaiaren inguruan Pablo Sastre idazlearen iritzi artikulua kritiko eta interesgarria da, Berria egunkari euskalduneari argitaratzeko idatzi eta hara bidali zuena. Baina zoritxarrez, Berria egunkarian ZENTSURATUA izan da (konfirmatua). Usurbilen asko garez Berriako harpidedun edo Berrialagunak, gertaera

larri honen berri izan behar duzuela pentsatu dut. Idatzian esaten denarekin eta gai honen inguruan Berriak daraman linea gogorarekin ados, kontra edo zalantzak izatea bidezkoa eta neurri batean normala izan badaiteke ere, ez dut uste halako jokabide eta praktika lotsagarriak egitearen aldekoak izango zaretenik. Google-ek Gara-ri 15.000\$ txertatu diola zabaldu da, Hernaniko Kronikari 5.000\$. Zenbatetan dago Berria? Hona hemen Pablo Sastren idatzia:

Kiberenen plaiara joatea debekatu dute; Zaragozan gau-festan ibiltzea; Belgikan, pertsona bat astean bost lagun minekin baino gehiagorekin ezingo da egon; Madrilgo tabernetan, erregistratu egingo dira bezeroen datuak; Hernanin eraikin bat konfinatu dute; Nafarroara ez joateko gomen-

datu du Alemaniako gobernuak; Generalitateak lahehun aztarnari kontratatu ditu; zahar batek positibo eman du Barakaldon... Absurdotik absurdora, albisteok tentsioari eutsi bai, ez digute, baina, benetan gertatzen ari dena ulertzen baxterez laguntzen.

Hasieratik hartu ziren neurri bidegabeak, oinarrizko eskubiak eta eginbehar etikoak ignoratzen eta zapaltzen zituztenak, eta ekar zitzaizketeen kalteei ezikusia egin zitzaizkien. Neurri horien arduradunak beren karguetatik kenaraziak izan beharko liriteke, handia baita berriz okerrean erortzeko arriskua. Herritar oro larriki afektatzen dituzten neurriak, hala nola derrigorrezko maskararak eta konfinamenduak berehalakendua behar dira, izu-eszenategietan izan direlako hartuak.

Zergatik segitzen dute zifrak

puzten, gertaerak eta datuak ezkutatzeko eta kontestutik ateratzen dituzte? Badira bost hilabete munduan beste albisterik ez dela. Hiltzen ote da, munduan, inor, Covid-19a ez den bestelako eritasunez? Ahots kritikoak ignoratuak eta zentsuratuak dira.

Paradigma berrian ohiko organizazioek, ezkerrekoek nabarmenki, beren gaitasunik eza eta beren sumisioa erakutsi dituztelarik, jende zentzudunak galdetu egin behar dio bere buruari non dagoen pasatzeko prest ez dagoen marra, bere printzipio etiko eta politikoei eutsi egingo badie.

** Pablo Sastren idatzi osoa,*

link honetan irakurgai:

<http://herritarbatasuna.eus/eu/adierazpenak/784-kiberen-2>

Asier Agirresarobe Azkue.

Ika-mika

Adinekoen Nazioarteko Egunean

Aurtengoa urte berezia da adinekoentzat, gure bizikidetzari, gure osasunari eta kolektibo kaltebera gisa ditugun eskubideei kalte handia egitera etorri den pandemia baten erdian ospatzen baitugu.

Hilabete hauetan, ongizate-sistema indartsu bat izatearen garrantzia egiazatu dugu; izan ere, osasun onik gabe, egoitza onik gabe, mendekotasunari zerbitzu onik eman gabe, babesik gabe gaude, eta, bereziki, adineko pertsonak, ikusi den bezala, pandemiak ongizateko erakunde publikoen garrantzia azpimarratu du, enpresa pribatuak ez baitira ordezkatzeko gai. Balorazio horrek Pentsio Publikoen garrantzia ere aitortzeri garamatza.

GAPED-PAMPEGek beti defendatu du adinekoen giza

eskubideak errespetatzea eta bizitza duina bermatzea. Arrazoi askorengatik daude ehunka mila adineko pobrezian sartuta, edo ezin dute hilabete amaierara iritsi, alokairua, argia, gasa eta abar ordaindu. Horregatik, Pentsio Sistema Publikoa blindatzea eskatzen dugu, eta 1.080 euroko Gutxieneko Pentsioa bermatzea, bizitza duina izateko.

Halaber, eskatzen dugu erakundeek, eremu guztietan, osasun publikoa berma dezatela, beharrezkoak diren giza baliabideekin eta baliabide materialekin, osasun arreta publiko duina bermatzeko, adinekoentzat hain beharrezkoa dena, besteak beste, gaixotasunak hartzeko oso adin ahulean gaudelako.

Era berean, etxean eta egoitzetan Zainketa Zerbitzu Publikoa behar dugu, espeku-

lazio-enpresek osasuna eta adinekoen zaintza kontrolatzea galarazteko, poltsiko gutxi batzuen mesedetan eta gehien goaren kaltetan. Ildo horretatik, publikoa eta komuna den guztiaren defentsa egiten dugu.

Pertsona zentroan jartzeak zaintza-eredua aldatzea dakar, eta horretarako, egoitzei giza baliabide eta baliabide material handiagoak eman behar zaizkie, pertsonen segurtasuna eta duintasuna bermatzeko.

Era berean, adineko pertsonen kolektiboan ere, berdintasun-politikak eskatzen ditugu.

Pentsioek, zein soldatetan eta pentsioetan dagoen arrakala kentzeak, osasunak eta zainketek (etxean edo egoitzetan) lehenetsuneko eginkizuna betetzen dute adinekoen osasuna eta bizitza zaintzeko, baina badira beste alderdi oso garrantzitsu

batzuk ere, haien ongizatean eragin zuzena dutenak eta defendatzea garrantzi handia dutenak, hala nola diskriminazioa eta tratu txar fisikoa, emozionala eta arduragabekeria zainketan desagerraraztea, baita nahigabe-ko bakardadea ere.

GAPED-PAMGen izenean elkartasuna adierazten diegu adineko pertsona ahulenei, eta eskatzen dugu gure giza eskubiak zaintzea eta bizitza duina bermatzea gure bizitzaren amaierara arte. Egun honetan, balioa eman nahi diogu adinekoek gizarteari egiten diogun ekarpenari, eta adierazi nahi dugu egiten ari garen borrokkak zentzu handia duela gure osasunerako eta bizitzarako.

Gipuzkoako Adinekoen eta Pentsiodunen Elkartearen Plataforma, Urriaren 1ean.

Pepa Bojo: “Krisietatik ikasi ezean, behin eta berriz errepikatzera kondenatuta gaude”

Pepa Bojo psikologoaren bisita izango dugu laster Usurbilen Jabekuntza Eskolaren eskutik. Covid19-ak autoestimuan, emozioetan eta ahalduentzian duen eraginari buruzko ikastaroa eskainiko du. Oraindik eguna eta lekua zehazteke daude, baina interesatuenek izena eman dezakete 943 37 71 10 telefonoan edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean. Hona ikastaroari buruzko xehetasun nagusiak.

NOAUA! Covid19-ak sortutako pandemiak zer-nolako eragina izan du emakumeen autoestimuan, emozioetan eta ahalduentze prozesuan?

Pepa Bojo: Horri buruz arituko gara ikastaroan, hain zuzen ere. Gure esperientziak elkarbanatzea da nire asmoa, ez nik azalpen teoriko bat ematea eta kito. Edonolako krisiek eragina izaten dute gizartean, eta horrek, ezinbestean, eragina izaten du gure baitan eta funtzionatzeko moduan. Gisa honetako egoerek gure baitan bilaketak egitera garamatzate, eta sarri gauzak ongi edo gaizki egiten ari ote garen galdetzen diogu geure buruari. Batzuetan egoerari aurre egin ezin diogula onartu behar izaten dugu



Parekidetasun Sailak Jabekuntza Eskola abiaraziko duela iragarri du. Elen Kortaxarenak biodantza ikastaroa eskainiko du eta Pepa Bojok (argazkian) autoestima zein emoziei buruzko ahalduentze-tailer bat.

PEPA BOJO

Jabekuntza ikastaro bat eskainiko du Usurbilen.

“Gure esperientziak elkarbanatzea da nire asmoa, ez nik azalpen teoriko bat ematea eta kito”

baita ere; orokorrean duda asko sortzen zaizkigu eta sarri gure buruari errua botatzera

eramaten gaitu horrek. Hori guztia partekatzea garrantzitsua da, eta konturatzea modu batera edo bestera denok ditugula momentu zailak, eta hori zerbait normala dela. Sentimendu horiei guztiei aurre nola egin eta geure buruekin nola ongi sentitu, hori izango da ikastaroaren funtsa.

Krisialdietatik ondorio onak ere ateratzeko, edo modu negatiboan baino ez digute eragiten?

Krisi guztietatik ikas daiteke. Krisiak ez dira ez onak, ez txarrak, gertatu egiten dira, eta horietatik ikasi egin behar da. Emakumeok krisietatik ez gara inoiz bereziki indartuta aterata, gisa honetako egoeretan zaintza lanak pisu handiagoa hartzen du, baita zaintzari lotutako lan horietan ere, eta gaixotasunen aurrean arrisku gehiago har ditzakegu. Lan baldintzetan ere ondorio zuzenak ditu, bai eta kaleratzeetan ere. Horrek guztiak autoestimuan eragina du, eta horregatik ikasi behar dugu autoestimua eta krisi egoeren artean arrakala bat sortzen. Autoestimua independentea izan behar du, aldezinezko zerbait behar du izan, eta horretara nola iritsi ikasi egiten da. Harremantzeko moduan ere berdin gertatzen da, egoera hauek harremantzen eragin zuzena dute eta ongi bideratzen ez badira arazo ugari sor daitezke. Hori guztiari aurre egiteko modu kontziente edo inkontzienteagoan denok sortu ditugu mekanismo berriak, eta horiek identifikatu eta norberak bere buruaz ikasteko aukera oso ona izan daiteke. Krisietatik ikasi ezean, behin eta berriz errepikatzera kondenatuta gaude.

“Urte hau gure ingurua behatzeko aprobetxatu behar dugu feministok, bai eta hausnarketarako ere”

NOAUA! Feminismoan krisi honek atzerapauso bat suposatuko du, edo indar gehiagorekin aurrera jarraituko dugula uste al duzu?

Pepa Bojo: Nik uste neurri handi batean biak izango dira. Urte hau gure ingurua behatzeko aprobetxatu behar dugu feministok, bai

eta hausnarketarako ere. Krisi hauek egoera zaurgarriengan dauden kolektiboetan izaten dute eragin handiena, eta desberdintasunak indartzeko aukera sortzen da.

Botere-indarrek erabakiak hartu beharko dituzte krisiari maila guztietan buelta ematen saiatzeko, eta erabaki okerrak

hartzeko aukera handia dago. Honen guztiaren aurrean erne egon behar dugu emakumeok, lan-baldintzak okertu eta kalean geratzeko aukera asko ditugu, bai eta behar baino karga handiagoak hartzeko ere. Erne bagaude pauso berriak eman ditzakegu eta gure borroka indartu. Proposamen

berriak egiteko aukera argia daukagu, gizartearen norantza aldatu eta zaintzari inoiz eman ez zaion garrantzia hori azpimarratu eta gizartearen erroan aldaketa sakonak proposatzeko. Alternatibak badaudela erakutsi eta martxan jartzeko aukera ederra izan daiteke.

“Autoestimua indartzeko tresnak jarriko ditugu mahai gainean”

NOAUA! Ikastaroan parte hartzen dutenek zer ikasiko dute orduan?

Pepa Bojo: Krisi honetan gauza asko daude benetan funtzionatzen ez dutenak, eta analisi bat egiteko tartea izango dugu. Eskubideak ez galtzeko kontu handiarekin ibili behar dugu, eta proposamen berriak egiteko abagunea izango dugu. Marko nahiko teoriko hori gure iritzi eta bizipenak partekatuz egingo dugu, baina ikuspuntu praktikoa ere izango du ikastaroak. Autoestimua indartzeko tresnak jarriko ditugu mahai gainean eta gure buruetatik ikasten saiatuko gara. Gure sentimenduak identifikatu eta horiek lantzeko aukera izango dugu, horietan sinesteko eta konplexuak alde batera uzteko, barne aldaketarako urratsak emango ditugu ahaldu-



Pepa Bojoren ikastaroan izena emateko epea zabalik dago oraindik.

tze bide horretan. Luze iraungo du krisi honek eta aurrera begira indartuta jarraitzeko beharrezko ditugun tresna horiek identifikatuko ditugu funtsean eta ahal den neurrian martxan jarri gure eguneroko bizitzetan.

Jabekuntza Eskola martxan

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbilgo Udaleko Parekidetasun

Sailak:

- “Biodantza” Elen Kortaxare-narekin.
- “Autoestima, emociones y empoderamiento en tiempos de covid19” Pepa Bojorekin.
- Ikastaro leku eta egunak zehazteke daude oraindik.
- Izena doan eta aurrez eman bideotatik: 943 377 110 parekidetasuna1@usurbil.eus

Zaintza lanen demokratizazioei buruzko jardunaldiak Buruntzaldean

Eskualde mailako jardunaldiok Hernanin antolatu dituzte Emagin elkarteak eta Beterri Buruntzako udalek urriaren 23 eta 24rako. Emagin elkarteak zaintza lanei buruz bideraturiko azterlan eta diagnosis aurkeztuko du eta gai honi buruz hausnartu eta konpromisoak hartzeko aukera izango da.

Urriak 23, ostirala

(Milagrosan, Hernani)

- 17:30 Harrera.
- 18:00 “Zaintzak erdigunera. Zertaz ari gara?”.
- 19:00 Zaintza lanen demokratizaziorantz. Beterri-Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamenaren aurkezpena.

Urriak 24, larunbata

(Biteri kultur etxean, Hernani)

- 10:00 Mahai ingurua.
- 12:30 Herri eztabaida: zaintza lanen demokratizaziorantz herri konpromisoak.
- Izen ematea: emagin.eus / 943 590 902.
- Antolatzaileak: Emagin elkarteak eta Beterri-Buruntzako udalak (tartean Usurbilgoa).



Gaztelekuko ekintzak

12 urtetik gorakoei zuzendua dago. Orduetegi honetan zabalitzen dute:

- Astelehena: 16:30-19:30.
- Osteguna: 16:30-19:30.
- Larunbata: 16:00-19:00.

Informazio gehiagorako:

Gaztelekuan aipatu ordutegian (San Inazio kalea 3) gaztelekuausurbil@gmail.com 943 371 050 / 688 713 838.

Pelαιοenea

barrutik eraikitzen

Etorkizunean Kalezar erdiguneko eraikinean kokatuko diren Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako udal ekipamendua zehazteko Usurbilgo Udalak sustatu eta Elhuyarrek dinamizatuko dituen parte hartze saioak abiatzera doaz.

- Urriak 8, 18:00 Emakumeen Etxeari lotutako lehen parte hartze saioa, izen emate kopuruak zehaztuko duen tokian. “Prozesurako balio eta printzipioen lanketa. Etxearen helburuak”.
- Urriak 15, 18:00 Kalezartarrentzako auzo ekipamenduari lotutako lehen bilera Haur Eskolan.

Izen ematea:

943 377 110
parekidetasuna1@usurbil.eus

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



Kima

MASAJE LEKUA



·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Urriko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Apxi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Ikasturtea hasierak porru eginda utzi zaitu eta ahalik eta gehien deskantsatzea komeni zaizu.

Hileko aholkua: Urriaren 25ean ordu aldaketa dator eta ordu bete gehiago izango duzu lo egiteko. Aprobetxatu!

**CANCER**

Beti zabiltza besteek zer egin beharko luketen esaten. Pentsatu al duzu noiz-bait energia horrekin guztiarekin zer egin?

Hileko aholkua: Pelaioenaren parte-hartze prozesua hortxe duzu...

**LIBRA**

Desiratzen zaude zure urte-betetzea ospatzeko, baina neurrian hartu beharko duzu aurten.

Hileko aholkua: Izan originala eta prestatu festa bat whatsapp bidez!

**CAPRICORNIUS**

Kultur ekitaldiek arnasmuna emango dizute hilabete honetan: antzerkia, hitzaldiak, ikastaroak,...

Hileko aholkua: Gogoratu Euskaraldian izena eman behar duzula!

**TAURUS**

Modu murriztuan bada ere, San Praixkuak ospatzeko aukera izan duzu.

Hileko aholkua: Bejondeizula! Batek daki eta noiz ospatuko ditugun berriro festak...

**LEO**

Kezkatuta zaude osasun egoeratik, baina ez duzu obsesionatu behar.

Hileko aholkua: Ez, gel hidroalkoholikoa ez da edateko; eskuak igurztearekin nahikoa da.

**SCORPIUS**

Maskarilla ez duzu gustuko, baina abantailak ere badituela konturatuko zara.

Hileko aholkua: Begiek asko esaten dute!

**AQUARIUS**

Datozen asteetan burua ilargian izango duzu, eta ahaleginak egin beharko dituzu egunerokotasunean arreta jartzeko.

Hileko aholkua: Zenbat aldiz ahaztu zaizu maskarilla etxean?

**GEMINI**

Kontuz diruarekin, azken aldiaren esku artetik oso erraz ihes egiten dizu eta.

Hileko gomendioa: Ez erosi maskarilla fashion gehiago!

**VIRGO**


Zure bihotza eta hormonak pil pilean egongo dira udazken hasiera honetan, beraz, saiatu gauzak lasai hartzen.

Hileko aholkua: Gutxienez maskarilla kendu ezazu muxu emateko!

**SAGITARIUS**

Emozio berrien bila arituko zara hilabete honetan, baina arrisku gehiegi hartzea ere ez da ona.

Hileko aholkua: Adibidez, ez hasi kalean jendea muskatu eta besarkatzen!

**PISCIS**

Jendezalea zara oso, baina batzuetan bakarka egotea ere komenigarria izaten da norbera hobeto ezagutzeko.

Hileko aholkua: Atera zaitetz terrazatik noizean behin!

Otar-Goxo
E l i k a g a i a k
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KOMBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Urrats gehiago, presoak etxeratzeko bidean

Preso eta iheslariek bizi duten egoerari aterabidea eman eta aplikatzen zaien salbuespenezko espetze politika bertan behera uztea exijitzeko mobilizazioa egin zuten urriaren 3an Usurbilgo frontoian, baita Euskal Herriko plaza anitzetan ere.

Sarek 650 mendi gailurretara martxak antolatuta zituen "Izan Bidea" dinamikaren baitan, baina euria tarteko datoren maiatzaren 8ra atzeratu zituen. Horren ordez, argazki jendetsuak ateratzeko gonbita luzatu zuen herrietako plazetan. "Jendarte honek konponbidearen bidean gauzatu nahi du preso eta iheslarien etxerako bidea eta elkarbizitza eta bakerako bidea", Usurbilgo Saretik adierazi zuten.

Aurrera begira urrats gehiago ematera deitu zuten. "Tontorra zein den badakigu; etxeratzeari, elkarbizitza, bakea. Segi dezagun beraz bidea egiten, bidea izan daitezen lortuko dugu", aldarrikatu zuten frontoian.

Hurrengo urratsa, urriaren 24an Donostian egingo den manifestazioa eta herritarrek eraikiko duten mosaikoa "Resolution". Mundu zabalera he-



Salbuespenezko espetze politika bertan behera uztea exijitzeko mobilizazioa egin zuten urriaren 3an Usurbilgo frontoian.

SARE USURBIL

"Tontorra zein den badakigu; etxeratzeari, elkarbizitza, bakea. Segi dezagun beraz bidea egiten, bidea izan daitezen lortuko dugu"

datu nahi duten mezu honekin Sarek adierazi nahi du, "unea dela, gehiengoak aldaketa nahi dugula, egoera hau ezin dela betikotu, eta elkarbizitzaren baitan aurrera egin ahal iza-

teko salbuespenezko espetze politika bertan behera utzi eta presoan etxeratzeko prozesua abian jartzea ezinbestekoa dela aldarrikatuko dugu".

Datozen mobilizazioak

Urriak 24, larunbata

■ 17:00 Manifestazioa Donostian Antiguako tuneletik salbuespen legediaren aurka, konponbidearen alde. "Resolution" hitzarekin mosaiko erraldoia osatuko dute manifestariek Kontxako hondartzan.

■ Deitzailea: Sare.

Urriak 30, ostirala

■ 20:00 Presoak etxeratzeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

■ Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

2021eko maiatzak 8, larunbata

■ 13:00 Andatzara mendi martxa, Euskal Herri osoan 650 mendi tontorretara igotzeko egina dagoen deialdian. Izen ematea: 650tontor.sare.eus

■ Deitzailea: Sare.

Informazio gehiago:sare.eus

Pobrezia desagerrarazteko mozioa aurrerago onartzekotan dira

Urriaren 17ko pobrezia desagerrarazteko nazioarteko egunari lotutako mozioa aurkeztu zuen udal gobernu taldeak irailaren 24ko udalbatzarrean. Pobrezia murrizteko beharrezko neurriak hartzeko prestasuna agertzen zuen mozioak, gure babes-sistema Covid-19ak eragindako beharretara egokitzea, edota Gizarte Zerbitzuen Euskal

Sistemaren prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.

Aurkeztu arren mahai gainean uztea erabaki zuten testua, gaia landu eta aurrerago erabateko adostasunarekin onartzeko.

EAJ-k mozioa mahai gainean uztea eskatu zuen. Adierazpeneko eduki nagusiarekin bat egin arren, pobrezia murriztu

baino desagerrarazteko konpromiso politikoa hartu beharrez mintzatu zen Andoni Atxega udal ordezkaria. Egoera ekonomikoa hobetu eta enplegu sendoa bultzatu beharra ere aipatu zuen duintasunez bizitzeko.

Ideion bueltan, mozioaren inguruko lanketa bideratu eta udal taldeen erabateko adostasuna biltze aldera, mozioa mahai gainean utzi eta hurren-

go udalbatzar batean onartzea proposatu zuen. Udal gobernu taldetik gai honen bueltan adostasun politikoa handiagotzea izate aldera, EAJ-ren eskaerarekin ados agertu zen, mozioaren eskakizuna pobrezia errotik deusezteko dela gogorazita. PSE-ko udal ordezkari Francisco Suarezek ere bat egin zuen gainerako udal taldeekin.

Jatorri aniztasunetik elkarbizitzan sakontzera

Sorterri ezberdinetako herritarrek osatzen dute Usurbil, guztiekin lanke-ta bat bideratu nahi du Usurbilgo Udalak. “Gure herrian jatorri eta kultura aniztasun ezberdina dugunon arteko gertutasuna eta elkarbizitza hobea lortze aldera, ekintza desberdinak diseinatu eta adostu nahi dira”, Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza hizpide izango dituen gaion lanketari begirako hitzordua deitu dute urriaren 15ean 18:00etan Sutegiko auditorioan. Euskaraz zein gaztelaniaz bideratuko den saiorako, leku mugatua izango denez, bertara joateko asmoa dutenei aurrez jakinaraztea eskatzen die antolakuntzak, bideotatik: parekidetasuna1@usurbil.eus / 943 377 110.

Diagnosia

Prozesu honen helburua, elkarbizitza sustatzea litzateke, beti ere jatorri aniztasuna aintzakotzat hartuta. “Elkarbizitza horren egoerari buruzko



“Gure herrian jatorri eta kultura aniztasun ezberdina dugunon arteko gertutasuna eta elkarbizitza hobea lortze aldera, ekintza desberdinak diseinatu eta adostu nahi dira”. Argazkia: Usurbilgo Udala.

JARDUNALDIA SUTEGIN

Jatorri aniztasuna eta elkarbizitzari buruzko jardunaldia Sutegiko auditorioan egingo da. Urriaren 15ean osteguna, arratsaldeko 18:00etan

diskurtsoak eta iritziak jaso nahi ditu, gerora, elkarbizitza sustatzeko aukera eman dezaketen egoera eta eremuetan esku-hartzeak martxan jartzeko. Izan ere, legealdi osoan garatuko den lan-ildoan izan-

go da”. Urriaren 15eko saioa honenbestez, prozesu honen abiapuntua litzateke, egitasmoa aurkezteko baliatuko dute hitzordua.

Jatorriak eta identitateak aintzat hartu

“Aniztasunari zein elkarbizitzari buruzko iritzi, pertzepzio eta jarrerak kokatzea da asmoa, usurbildarren jatorriak eta identitateak aintzat hartuta. Horrekin batera, identitate desberdinen eta euren kultura nahiz bizimoduaren aitortza

eta errespetuarekiko iritziak, euskara eta euskal kulturari buruzkoak zein pertsona guztien eskubide sozial, ekonomiko, linguistiko eta kulturalen gaineko iritziak ere kokatuko dira”. Herrian izan duten harrera, beste komunitate edo identitate bat dutenekiko hartu-emanak, migrazio proiektuak, euskal kultura zein jatorrizko kulturak ez direnak, eskubideak... eta alderdi gehiago aztertuko ditu Aztikerrek, 11 ezaugarri zehatz betetzen dituzten herritarrei egingo zaizkien elkarbizitza sakon bidez jorratuko duen diagnosian.

Aniztasun-plan bat

Helburu argia du lanketa honen; jatorri ezberdinetako herritarren arteko hartueman eta interakzioa indartu eta elkarbizitzak hobetzeko gakoak bildu eta denon artean adostu eta lantzea. Diagnosiko emaitzeekin, legealdi honetarako diseinaturiko planean jaso bezala, “aniztasun-plan bat egitea da asmoa, elkarbizitzan sakondu ahal izateko”, Udalak gogorazti duenez.

Jatorri aniztasuna zenbakitan, Usurbil 2020

Aztikerrek Usurbilgo jatorri aniztasuna zenbakietan bildua du aurten ere. Sorterri aniztetako herritarren Usurbil dugu:

Herritarrek guztira: 6.200.

Euskal Herrikoak guztira:

5.123 (%82,6).

■ Gipuzkoan guztira: 4.954 (%79,9).

■ Udalerrian jaiok: 2.636 (%42,5),

■ Gipuzkoako gainerako udalerrietan 2.318 (%37,3).

■ Araban: 13 (%0,2).

■ Bizkaian: 70 (%1,1).

■ Nafarroan: 84 (%1,3).

■ Ipar Euskal Herrian: 2 (%0,0).

Europakoak: 755 (%12,1).

■ Espainiako Estatukoak 652 (%10,5a). 118 Cacereskoak, 78 Salamancakoak edota 67 Badajozekoak, 41 Palencia-koak, 37 Burgoskoak, 26 Madril-ekoak, 12 Pontevedra eta Valladolid-ekoak, 10 A Coruña-koak, 7 Errioxakoak...

■ Europako gainerako herrialdeetakoak: Errumani-koak 42, 21 Portugalekoak, 10 Frantziakoak, 10 Ukrai-

nakoak, 2 Alemaniakoak, 5 Bulgariakoak, 4 Erresuma Batukoak, 1 Errusiakoak...

Amerikakoak: 237 (%3,8)

■ Ipar Amerikakoak: 2.

■ Ertamerikakoak: 83 (Hondurasko 25, Mexikoko 4, Nikaraguako 54).

■ Antiletakoak: Kubako 13 eta Dominikar Errepublikako 5 herritar.

■ Hego Amerikakoak: Argentinako 21, Boliviako 2, Brasilgo 11, Ekuadorko 31, Kolonbiako 28, Paraguayko 8, Peruko 11, Txileko 8, Uru-

guyako 2, Venezuelako 12 herritar.

Afrikakoak: 63 (%1)

■ Ipar Afrikakoak: Argeliako 4, Marokoko 26 herritar.

■ Saharaz hegoaldea: Nigeriako 11, Senegalgo 2 herritar...

Asiakoak: 22 (%0,3)

■ Txinako 5, Mongoliako 1, Pakistango 8 herritar... Ozeaniakoak: 0.

Informazio gehiago:

udal.aztiker.eus/usurbil

Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak batzeko ekimena abiarazi dute

Kultura kontsumo eta aisialdi produktu soil bilakatu nahi den garai hauetan, “inoiz baino garrantzitsuagoa da kulturagileok, sortzaileok, artistok, kulturako langileok... elkar saretu eta, gure eskubideak aldarrikatzearekin batera, gure izaera, nortasuna, indartuko dituen elkar-guneak sortzea”. Plataforma digital bat sortu dute. Hilabete amaieran aurkezpen ekitaldiak egingo dituzte herri herri.

Kultura eraikitzea maite duten zenbait gazte elkartu dira eta Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak dinamika abiatu dute. “Covid-19aren ondorioz bizitako berrogeialdiak eta jarraian etorritako Normaltasun Berrian bizitzen ari garen egoera ziurgabeak mugiarazi gaitu. Derrigortutako itxialdiaren aurretik ere, bakarturik prekarioriki biziraun dugu Buruntzaldeko gazte sortzaileok”.

Isolamenduak ordea, argi utzi zuen artea eta kultura “lehentasunezko alderdiak direla gure bizitzetan, sorkuntza, argi izpi bilakatu zen bakardadez jositako zingira ilunean. Eta, gure agintariak, hortaz ohartu



Plataforma digital bat sortu dute eta hilabete amaieran aurkezpen ekitaldiak egingo dituzte herri herri. Irudia, artxibokoa.

JARDUNALDIA SUTEGIN

“Plataforma digitala eskualdeko sortzaileen topagune eta elkar harremantze tresna izateko helburuarekin diseinatu dugu”

eta, itotzear den euskal kultur munduarekiko aitortza egin eta irtenbideak proposatu beharrean, berriz ere baztertuta utzi gaituzte”. Gazte hauen esanetan, “ez da kasualitatea. Artea, sormena da, mugimendua da. Dinamismoa. Norbanakoak eta ondorioz, gizarteak astintzeko

eta eraldatzeko gaitasuna duen motore iraultzailea”.

Helburu nagusiak

Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak proiektua hiru helburu nagusi hauen baitan trinkotu nahi da:

- 1- Eskualdeko gazte sortzaileak elkar ezagutu eta saretzeko. Horretarako Buruntzaldeko Gazte Sortzaileen Plaza sortu dute. Plataforma digital hau “eskualdeko sortzaileen topagune eta elkar harremantze tresna izateko helburuarekin diseinatu dugu”.
- 2- Euskal kulturagileei “kolek-

tiboki kolpatzen gaituen problematikari modu bateratuan aurre egitea. Gure kultura pairatzen ari den bazterkeria salatu eta honi arnaguneak eskaintzeko ekimenak eta aldarrikapenak gauzatzea dago-kigu”.

3- Inguratzen gaituen munduarekiko kritikoa eta konprometitua den kulturagilearen figura aldarrikatzea. “Horretarako, gure eskualdeko herriak zipiritinduko dituen artegintza dinamika eta gogoeta proiektuen gauzatzea dugu xede”.

Beraz, helburu hauen bidean, dei egin diete eskualdeko gazte sortzaile sentitzen direnei, plataforman izena eman dezaten: buruntzasortzaileak@gmail.com

Aurkezpenak herriz herri

Hil honetan zehar aurkezpen presentzialak egingo dituzte herriz herri. “Kokapen zehatzak datozen egunetan argituko ditugu”, ohartarazi dute ekimen honen sustatzaileek:

- Urriak 15 osteguna, 18:00etan Hernanin.
- Urriak 16 ostirala, 18:00etan Lasarte-Orian.
- Urriak 22 osteguna, 18:00etan Usurbilen.

“Beterri Saretuz” programari buruzko jardunaldia

Parte-hartzean oinarrituriko enpresen ekosistema bat sortzeko helburuz abiatu zen ‘Beterri Saretuz’ programa. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Buruntzaldeko Udalak dira sustatzaileak.

Lehen pausoa 2019ko azaroaren 7an eman zuten, Orona-Ideon hainbat esperientzia ezagutaraziz. Otsailaren 13an, berriz, parte-hartzea bultzatzeko gakoak identifikatu zituzten tailerren bidez.

Eduki hori guztia landu eta antolatu ondoren, urriaren 8an gida bat aurkeztuko dute proiektuaren bultzatzaileek, Hernaniko Biteri Kultur Etxean egingo den jardunaldian, 9:30etik 12:30era.

Urriak 8, osteguna

Tokia: Biteri Kultur Etxea, Hernani (Nafar kalea 18)
Ordua: 9:30etik 12:30era.
Izen-ematea zabaldik da: <https://labur.eus/U55hd>



Ostegun honetan, Hernaniko Biteri Kultur Etxean.

“Eskola barruan 19 Arigune sortu ditugu”

Euskaraldiaren lehen edizioan, erabilera aragotzeko banakako ariketa proposatu zitzaigun. Ahobizi eta Belarriprest rolak sortu ziren horretarako propio. Bigarren edizioan urrats berri bat eman nahi da. Banakako konpromisoari uko egin gabe, taldekakoa sustatu nahi da. Lantokiak, saltokiak, erakundeak, bilguneak... Euskararentzat irabazi nahi dira Ariguneen bitartez. Usurbilgo Lanbide Eskola izan da urrats hori eman duen entitateetako bat.

NOAUA! Duela bi urteko Euskaraldian hartu zenuten parte. Zer nolako oroitzapena gordetzen duzue?

Amaia Aizpurua: Usurbilgo udal-letxetik argazkiak ateratzeko panel batzuk ekarri zizkiguten. Horretaz gain, ‘Egunean behin’ taldea osatu genuen. Eta bestelako ekintzak ere burutu genituen.

Iñaki Arostegi: Oso oroitzapen ona gordetzen dugu. Oso giro polita sortu zen. ‘Egunean behin’ jolasaren kontura bi talde osatu genituen. Bat irakasleen artean eta bestea ikasleen artean. Eta bi astez hainbat sari banatu genituen.

Sentsibilizazio arloan, oso ondo etorri zen Euskaraldia-rena. Bestetik, azken urteotan gauzak aldatu egin dira



“Klaustroak euskaraz egiten dira orain”, azaldu digute Usurbilgo Lanbide Eskolako ordezkariak.

ZER DA ARIGUNE BAT?

“Euskaraz aritzeko joera duen horri ikastetxe barruan euskaraz aritu ahal izango dela bermatzen zaio”

hemen. Duela hamar urte ikastetxeko langileen arteko idatzizko komunikazioa gaztelera hutsez egiten zen. Gero bi hizkuntzatan egitera pasa zen eta orain batez ere euskaraz egiten da.

Irakasleen gehiengoa euskalduna izango al da?

A. A. Bai, eta klaustroak euskaraz egiten dira orain. %90ean euskaraz aritzen gara.

I. A. Ia dena euskaraz egiten da, naturaltasun osoz. Zentzu horretan, bilakaera handia egon da azken urteotan.

Euskararen erabilera sustatzeko beste urrats bat eman duzue eta entitate gisa eman duzue izena aurtengo Euskaraldian. Usurbilgo Lanbide Eskola izango da Ariguneetako bat.

A. A. Eskola barruan 19 Arigune sortu ditugu. Zuzendaritza hasi ginen. Hori izan zen abiapuntua. Ahobatez onartu zen proposamena eta ondoren

departamenduz departamendu joan ginen proposamena aurkezten. Berrikuntza taldea dago hemen, Normalkuntza taldea, Marketing taldea, IKT... Eta denek bat egin zuten proposamenarekin.

Zein da Arigune gisa hartzen den konpromisoa?

A. A. Talde mailako konpromisoa da.

I. A. Euskaraz aritzeko joera duen horri ikastetxe barruan euskaraz aritu ahal izango dela bermatzen zaio. Eta jakin baina erabiltzen ez duten horiek sentsibilizatzeko ere balio duela uste dut.

“Enpresa munduan eragitea garrantzitsua da”

NOAUA! Arigune izateak eskolako langileen, irakasleen eta ikasleen arteko kohesioa indartuko duela uste al duzue?

Iñaki Arostegi: Bai. Langileen artean zalantzarik gabe. Zentzu horretan, duela bi urteko Euskaraldiak garrantzia handia izan zuen. Gure eskolan eta, orokorrean, gizarte mailan. Modu positibo

batean eragiten delako.

Ikasleei dagokionez, beste faktore batzuk daude tartean. Hemen A eredu taldeak ditugu. Zailagoa da akaso, baina uste dut positiboa izan zela denontzat.

Amaia Aizpurua: Enpresa munduan eragitea ere garrantzitsua da. Hemen euskaraz ikasten duten ikasleak

enpresetara lanera joaten direnean, maiz erdara hutsez aritu behar dute. Lantokiko programak eta dokumentuak erdaraz dituztelako. Enpresek Arigune gisa parte hartuko balute, eraldaketa bat emateko aukera legoke.

I. A. Lanbide Heziketako hezkuntza zentroa izanik, oso lotuta gaude enpresa

munduarekin. Bigarren mailan praktikak egitera joaten dira. Dual programarekin adibidez, ikasi eta lan egin, biak batera egiteko aukera dute. Ingurua euskalduna izanda, euskaraz ez dakitenek arazoak izan ditzakete. Enpresa askotan euskara ezinbesteko baldintza bat da jada.

Ikasturtea martxan, neurri zorrotzen artean

NOAUA! Covid-19ak gogor jo du eta eragina izan du sektore ekonomiko guztietan. Baita hezkuntza alorrean ere. Ikasturte hasiera nolakoa izan da hemen?

Iñaki Arostegi: Irailean hasi ginen eta Hezkuntza Saitetik irizpideak ez zeuden oso argi ezarrita. Oso gogorra izaten ari da. Ziurgabetasun handia dugu. Lehen asteetan espazioak antolatzen aritu gara batez ere, ikasleen arteko distantzia mantendu ahal izateko.

Martxan jarri garenetik hona, duda asko eta galdera asko sortu zaizkigu.

Ez dago eskulibururik edo protokolo-gidarik?

I. A. Badago baina aurrera eramatea zaila da.

Amaia Aizpurua: Dituzun baliabideak kudeatu behar dituzu.



Goizeko 8:00etan gelan sartzen direnean, ikasle denei tenperatuta hartzen zaie.

IÑAKI AROSTEGI

“Lanbide Heziketan ondo samar gaude baliabide aldetik. Baina egoera zaila da, beste sektore guztietan bezalaxe”

I. A. Lanbide Heziketan nahiko ondo gaude baliabide aldetik. Baina egoera zaila da, beste sektore guztietan bezalaxe.

Zer nolako neurriak hartu behar izan dituzue?

I. A. Atsedean tartea adibidez, lehen 11:00etatik 11:30era izaten zen. Ikasle denak ordu horretan irteten ziren patioa. Orain atsedean tartea berrantolatuta egin ditugu.

Talde bakoitzak, orain, bere gune propioa dauka patioan. Talde bakoitzak badaki atsedean tartean zein gunera joan behar duen, beste taldeetakoekin nahastu ez dadin. Horrela, positiboren bat ematen bada, talde bati bakarrik eragin diezaion eta ez ikastetxe osoari.

Goizeko 8:00etan gelan sartzen direnean, ikasle denei tenperatuta hartzen zaie. Eta gela bakoitzak kit bat du eskuak garbitzeko. Eskolako tailerrean ere, talde bat atera eta bestea sartu aurretik, dena garbitzen da.

Ikasleek nola hartu dute hau dena?

A. A. Ondo. Ikasleak kontuz dabilta ze euren helburua da eskolak maila presentzialean jasotzea. Konfinamenduan etxetik jarraitu behar izan zitezuten eskolak eta nahiago dute eskolara etortzea, klaseak etxetik jaso baino.

I. A. Martxotik ekainera etxetik aritu behar izan genuen eta oso zaila izan zen denontzat. Irakasleontzat izugarritzko lana izan zen. Materiala dena egokitu behar izan genuen. Eta ikasleei ere gogorra egin zitzaion.

COVID19 BIRUSAREKIN GAIXOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarreko materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).
Pazientearen logelaren barruan egin.



SARTU 1GO POLTSA, ZAINTZAILEAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).
Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.
DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776):
GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



ARRETAZ GARBITU ESQUAK,
URA ETA XABOIA ERABILITA,
40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik

GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan
Etxean: errefusaren kuboan



GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN



Berriola-Fagor Automation: “Aurrekoan langileen %85ak hartu zuen parte Euskaraldian”

Ikastetxeak, instituzioak, saltokiak, lantokiak, kirol zein kirol elkarteak... Era askotako entitateek bat egin dute Euskaraldiarekin. Horien artean da Txokoaldeko Berriola-Fagor Automation enpresa.

NOAUA! Duela bi urteko Euskaraldian ere hartu zenuten parte. Nola joan zen Berriolan? Zer nolako oroitzapena gordezten duzue?

Berriola-Fagor Automation, Txokoalde: Ona, langileen %85ak hartu zuen parte eta eguneroko arruntean euskaraz hitz egiten ez duten pertsona asko animatu ziren egun horietan euskaraz egitera. Datuak ematearren, egun horietan euskararen erabilera %54tik %66ra igo zen. Euskara Plan bat daukagu eta egun horietan aprobetxatu zen erabilera neurketa batzuk egiteko.

Euskararen erabileran eragiteko, beste urrats bat eman duzue eta Arigune bezala jardungo duzue Berriola-Fagor Automation-en. Zeintzuk dira Arigune izateko hartu behar diren konpromisoak?

Lantegian bertan Euskaraldiaren aurkezpena egin genuenean azaldu genuen bezala, ulermena bermatuta egotea eta langileen onespena izatea. Lantokian Arigune desberdi-



“Lantokian Arigune desberdinak izango ditugu, zonaldeka banaturik. Eta guztia bermatuta eta adostuta dago”.

BERRIOLA - FAGOR AUTOMATION, TXOKOALDE

“Urtean zehar euskaraz jardutea gehiago kostatzen zaien lankide horiei, Euskaraldian beste motibazio bat ikusten zaie.

Euskaraz jarduteko ‘lotsa’ edo zailtasunak galdu edota txikiagotu egiten zaizkie egun horietan”

nak izango ditugu zonaldeka, eta guztia bermatuta eta adostuta dago.

Arigune ezberdinak definitu dituzue. Horrek Berriolako langileen arteko kohesioa indartuko duela uste al duzue?

Hainbeste ez, izan ere, lehendik ere badugu Euskara Plana, eta kohesio hori lehendik ere baguenen.

Zalantzan egon daitezkeen entitateei zer esango zeniekete?

Animatzeko esango genieke, gure esperientzia oso polita eta aberasgarria izan zelako, eta ondo pasa genuelako. Lehen aipatu bezala, urtean zehar euskaraz jardutea gehiago kostatzen zaien lankide horiei, egun horietan beste motibazio

bat ikusten zaie; eta euskaraz jarduteko “lotsa” edo zailtasunak egun horietan galdu edo txikiagotu egiten zaizkie.

Covid19-ak gogor jo du eta eragina izan du sektore ekonomiko guztietan. Berriolan zein da egoera? Produkzioari eutsi diozue ala asko jaitsi al zaizue lana?

Bai, inguru guztian bezala, Covid19-ak eragina izan du gure egunerokoan eta lan jardueran, jaitsiera orokor bat egon da aktibitatean eta gizarte guztia bezala gu ere etorkizuna nolako izango den atzeman ezinik gabilta.

29 entitate, hamaika Arigune Usurbilen

Aurreko astean azaldu genuen moduan, Euskaraldia azaroaren 20an abiatuko da eta abenduaren 4ra arte luzatuko da. 15 egunez, Ahobizi edo Belarriprest roletan parte hartzeko deia egin zaie herriarrei. Dagoeneko izen-ematea zabalik da euskaraldia.

eus web orrialdean.

Usurbilen 29 entitate batu dira Euskaraldira

AEK, Aginaga Herri Eskola, Aitzaga taberna, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Ane ileapaindegia, Artzabal, Bidelan Gipuzkoako Au-

tobideak S.A., Biyok 24 ordu, CIPP usurbil LHII, Elhuyar Fundazioa, Fagor Automation, Gestion de Servicios Residenciales (GSR), Hurbilago Usurbilgo merkataria eta ostalarien elkarte, Ikaslan Gipuzkoa, Intza Ile-Apaindegia, Kabiene, Laboral Kutxa, Laneki elkarte,

NOAUA! Kultur Elkarte, Orbeli Dantza Taldea Elkarte, Pello Arraindegia, Saizar Sagarroa, Santueneko Zaharren Egoitza Taberna, Udarregi Ikastola, I.K.E., Urbil merkataritza-gunea, Usurbil KE, Usurbilgo Udala, Zumarte Musika Eskola.

“Guk Zubietan zer” esateko aukera aparta

Etorkizuneko Zubieta marrazteko aukera izango dute bizilagunek, ostegun honetan, urriaren 8an abiatuko den “Guk Zubietan zer” parte-hartze prozesuarekin. Prozesu horretan eginiko lanketaren emaitza, Usurbilgo Udalak 2021. urtean hasieraz onartu asmo izan eta datozen 10-15 urteko udalerria zehaztuko duen Usurbilgo Hiri Antolamendurako Planean (HAPO) txertatuko dute. Prozesuaren aurkezpen ekitaldia urriaren 8rako deitu dute, 18:30ean Zubietako frontoian. Bertaratu nahi duenak aurrez eman beharko du izena hirigintza@usurbil.eus helbidera idatzita.

Prozesu horretan zubieta-reek eginiko ekarpenak gero Usurbilgo HAPO-an txertatuko dira eta plangintza honek “hurrengo 10-15 urterako Usurbil marraztuko du”, Udalak iragarri duenez.

Plangintza honen lanketaren baitan, “herriko hainbat toki-



Zubietarrekin eginiko ekarpenak Usurbilgo HAPO-an txertatuko dira eta plangintza honek “hurrengo 10-15 urterako Usurbil marraztuko du”.

PARTE-HARTZE PROZESUA

**“Guk Zubietan Zer”
parte-hartze
prozesuaren aurkezpen
ekitaldia urriaren 8rako
deitu dute, 18:30ean
Zubietako frontoian”**

tan, tokian-tokiko herritarrekin halako parte-hartze prozesuak egin izan ditu udalak”. Horren adibide Aginagan bideratua duten lanketa. “Interes orokorra oinarri, herritarren ikuspuntua eta bizipenak jasotzea behar-beharrezkoa da egune-

roko bizitzari eta etorkizuneko erronkei erantzuneko dien planean egiteko”, alkate Agurtzane Solaberrietaren esanetan.

Helburua argia da: “etorkizun hurbila zubietarrekin eurek irudika dezaten”. Prozesuaren nondik norakoak Udalak eta Zubietako Herri Batzarrak landu dituzte. “Halaber, Donostiako Udalarirenekin aurkeztu diete egitasmoa: haiek HAPOa berridazteko fasean ez badaude ere, Usurbilgo Udalak abiatuko duen prozesuan interesa adierazi eta parte hartzeko

konpromisoa hartu dute”.

Aurkezpen ekitaldia eta erakusketa

Urriaren 8an abiatuko da prozesua, Zubietako Herri Batzarrak, Usurbilgo eta Donostiako Udalek eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) deitu duten aurkezpen ekitaldiarekin. EHU-k gidatuko du datozen bi hilabeteetan luzatuko den prozesua. “Arkitekturen fakultateko ikertzaile talde batek diseinatu eta gidatuko du, eta urri eta azaro bitartean burutuko da prozesua”.

Erakusketa batek abiaraziko du prozesua, Udalak iragarri duenez. “Zubietako espazio publikoan jarriko den erakusketarekin emango zaio hasiera prozesuari. Pasa den ikasturtean EHUKo Arkitektura Eskolako ikasleek hainbat tokitan espazio publikoaren eta hiri ekipamenduen inguruan egingo dako lanak erakutsiko dira, tartean, Zubietan bertan egingo dako”.

HAPO-ren zeharlerroak aztergai

Hirigintza genero ikuspegia kontuan izan eta euskararen duen eragina aztertuko du Usurbilgo Udalak, bi eremu hauen behaketa lana egiteko kontratatatu dituen bi kanpo aholkularitzen laguntzaz. Lanekin, genero ikuspegia eta euskara, idazketa fasean duten Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) txertatzea dute helburu.

Bi kanpo aholkularitzok lanean dira, azterketa lanak urte amaierarako bukatzea aurreikusia dute. Helburu argia dute; azterlanok aintzakotzat hartuta, euskara eta genero ikuspegia Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) txertatzea. Usurbilgo Udaleko alkate



Idazketa fasean da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO).

UDALA

“Azterlanak aintzakotzat hartuta, euskara eta genero ikuspegia Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) txertatu nahi dira”

Agurtzane Solaberrietak gogorarazi duenez, HAPO idazketa fase betean dute. “2021ean

hasieraz onartzea da asmoa”. 2014ko maiatzean abiatu zuen Udalak Usurbilgo Plangintza Orokorra berrikusteko prozesua, “ordutik hainbat parte-hartze prozesu egin eta hainbat dokumentu onartu dira”. Tartean, 2015. urte amaieran, “HAPO idazteko oinarritzeko plangintzaren irizpide eta helburuak onartu zituen Usurbilgo udalbatzak”.

Kanpo aholkularitza

Guztira lau: “herritarren parte-hartzearen beharra, hirigintza jasangarriaren eta ekologikoaren irizpideak barneratzea, genero ikuspegia aintzat hartzea eta hirigintzak euskararengan duen eragina neurtzea”. Genero ikuspegia kontuan hartu eta hirigintzak euskararen duen eragina sakontasunez aztertu asmo dute orain. “Horretarako, gai horietan adituak diren bi kanpo aholkularitza kontratatatu ditu. Batetik, Arrixu Zelaia Etxeberria hizkuntza aholkulariak ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egingo du; hirigintza genero ikuspegitik aztertuko dute, berriz, Silvestrina kooperatibak, Dunak taldeak eta Col·lectiu Punt 6 kooperatibak, elkarlanean”.

Ezohiko San Praixkuak , iruditan

San Praixku asteburu ezberdina izan da aurtengo. Hiru ekitaldi baino ez dituzte osatu, baina aginagarriak animatu dira egun berezi horiek ospatzera.

Ene Kantak ikuskizuna

Haurrentzako ikuskizunak hartu zuen ostiraleko protagonismoa. Iruñeko bikoteak erraz asmatu zuen haurrak kantari jartzen; dantzak hurrengo batean beharko du. Protokoloak agindu bezala, distantziak mantenduz, gradetako eserleketan, zein aulkietan eseri ziren ume eta gurasoak.

Mihise eta Unidad Alavesaren kontzertuak

Larunbatean Aginaga gazte eta helduen elkarleku bilakatu zen.



Udane Ostolazak erakustaldi ederra eman zuen igandean.

PROTOKOLOAK BETEZ

Ekitaldietan aginagarri ugari aritu ziren antolaketa lanetan, "eta arauak errespetatzen zirela gainbegiratu zuten"

Ostiralean egin legez, protokolo zorrotzak mantendu zituzten

frontoian. Sartu aurretik gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbitu, eta distantzia errespetatuz bakoitza bere lekuan eseri zen. Aginagarri ugari aritu ziren antolaketa lanetan, eta arauak errespetatzen zirela gainbegiratu zuten.

Amaitzeko, herri kirolak

Igande eguerdian amaitu ziren

aurtengo San Praixku bereziak, eta aurtengo programazioa ixteaz herri kirol erakustaldia arduratu zen. Punta puntako harrijasotzaileak eta aizkolariak aritu ziren lanean: Jokin Eizmendi, Imanol Illarramendi "Kortaberri", Gorka Etxeberria eta Udane Ostolaza. Azken horrek 15 urte besterik ez ditu, baina adinak ez duela axola erakutsi zuen neska gazteak 50 eta 70 kiloko harriak behin eta berriz sorbaldara igota. Aizkolariak ere aski ezagunak: Iñaki Azurmendi eta Xabier Zaldúa. Zortzina enbor erdibitu zituzten aizkoradaka arinetan.

Erakustaldiarekin behin amaituta, aginagarriak gehitu zitzaizkien profesionaleri, herrian kasta badutela erakustera.



Irati Ibargoien: “Jendea lasai dator”

NOAUA! Konfinamenduan zenbat denbora izan zenuten itxita? Irati Ibargoien fisioterapia-osasuna: 7 astez maiatzaren 4ra arte. Ixteko agindurik ez genuen, baina 1,5 metroko distantzia bermatzeko betebeharra. Ohatilako tratamenduak eta taldekako saioak egiten ditugunez, ez zen bideragarria eta etikoki ez zen logikoa irekita mantentzea.

Zer eragin izan du itxierak?

Edozein arloetan izan dezakeen eragin ekonomikoaz gain, hasitako tratamendu batzuk bertan behera geratu ziren eta eguneroko jarduna eteteak lana pila-tzea eragin zuen.

Zuen jardunean eta bezeroen osasunean ere eragingo zuen.

Telelana egiten ari ziren askok deitzen zigun lanean ote ginen galdetzeko. Inpotentzia handia sentitzen genuen. Artatu



“Jendea lasai dator hona, badakielako protokoloak betetzen direla”.

IRATI IBARGOEN

“Beldurrez ezin gara bizi. Baina egia da kontuz ibili behar dela. Dugun protokoloa gizartea babesteko da, ez norbere burua babesteko soilik”

ezin genuen behar handiago bat sortzen ari zen gizartean. Urgentziak tratatzeko baimena genuen babeserako material

eta protokolo guztiekin. Baina EAE-ko ia 400 fisioterapia zentrok batera materiala eskatzen genion gure betiko banatzaile bati, ia hilabete beranduago iritsi zen materiala.

Eta bezeroen osasun egoerak ezin itxaron.

Eta jakin zutenean maiatzaren 4an martxan jarri ginela, bat batean denak deika. Lanerako itzulera kaotikoa izan zen zer-

txobait. Dena pilatu zitzaigun. Zentrua egokitu behar izan genuen itxialdian. Maiatzaren 4tik orain arte protokolo berarekin jarraitzen dugu; oinetakoak sarreran utzi, sarreran tenperatura hartu, ohatilan musukoekin tratatu, hidrogela, manparak...

Gertuago egitasmoarekin bat egin duzue. Zuenen zer harre-ra izan du?

Gure kasuan interesgarria iruditu zitzaidan formatu digital hau, gerora hortik mugimendua sortzeko. Erosketa-bonuen kasuan, gure zerbitzua azkenean jendeak erabiliko duela dakienez, egun eta erdian bonu guztiak gastatzen dira. Ondo iruditzen zait azkenean jendeak bere partetxoa aurreztu dezake, baina egia da denda motaren arabera gehiago kostako dela saltzea. Halere, ondo funtzionatu du. Jende heldua ere animatu da pixka bat.

“Gertutasunak duen garrantzia erakutsi digu birusak”

NOAUA! Nola oroitzen duzu martxoko itxiera?

Naiara Fernandez, Oinutsik podologia zentroa: Gure itxiera pixka bat kaotikoa izan zen. Sanitarioak izanda, larrialdi kasuentzat irekia izan behar genuen. Ez genuen protokolo bat finkatua. Material falta zegoen, neukana beharra zuten tokietan banatzen aritu nintzen.

Itxialdiak zer eragin izan zuen zure zentroan?

Larrialdi kasuekin oso gutxi lan egin dugu. Diru sarrerarik ez, gastuak denak. Larrialdietarako zabalik ginela kontuan hartzen zutenez, laguntzetatik kanpo geratzen ginen. Gero hainbat sanitario eremuetako langileak elkartu ziren indarra egin eta laguntza jasotzeko, bestela bideraezina zen. Bezeroei dagokienean, konfinamendu ostean ikusi da oinek asko sufritu dutela berriz martxan jartzean. Postura aldetik



“Oso gustura nago Gertuago egitasmoarekin. Bezero bati bonu bat duela esatea beti da lagungarria”.

NAIARA FERNANDEZ

“Birusak erakutsi digu osasuna lehenetsi beharrekina batera, gertutasunak duen garrantzia. Bertan bizi eta bertan erosteak”

ere hor bai lanketa polita izan dugu.

Itzulera mugitua beraz.

Bai. Gogotsu baina lan eta familia bizitza uztartzeko zaila. Lana gainezka. Protokolo oso zorrotzarekin hasi ginen eta lasaitzen joan da. Protokolo honen parte bat gure egunerokotasuneko funtzionamenduan sartua zegoen halere. Askok espaziatu behar ziren pazienteak barruan ez elkartzeko, garbiketa oso sakona egiteko, eta konturatu gabe goiza pasatzen zen.

Ezohiko egoera honetan egonkoritu al zarete?

Bai, nahiko. Inguruko herrietatik bezero berriak datozela nabaritu dut. Lehen adibidez Donostia erdigunera joaten zenak orain nahiago du toki txiki bat.

Laguntza premiarik nabarmenduko zenuke?

Gure laguntza handiena jendeak bere ohiko kontsumoarekin jarraitzea litzateke. Beldurrez ez, protokoloak mantenduta, errespetuz bizi-tzea.

Bezeroei zer esango zenieke?

Protokoloekin jarraituko dugula, lasai asko etor daitezkeela. Egoera honek erakutsi digu zer zortea izan dugun herri txiki batean bizita; dena gertu dugu, bertan kontsumitzeak asko lagundu die bezeroei, bai bertako komertzioei eta hala jarraitzeko.

Alkatearen errekerimendua, Lasarte-Txikiardi arteko bidegorri proiektuari

Lasarte-Txikiardi arteko bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko proiektuaren bigarren faseari errekerimendua aurkeztu zion alkateak irailaren 4an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamenduaren aurrean. Alkateak aurkezturiko errekerimendua iraila amaierako udal ordezkarien osoko bilkuran berretsi zuten gehien-go osoz, EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ aurka agertu eta PSE abstentitu zen.

Errekerimendua aurkezteko planteamendua Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako jakinarazpenaren haritik dator. Abuztuaren 28an, juxtu hilabete lehenago, Lasarte-Txikiardi oinezkoen eta bizikleten arteko bidea eraikitze proiektuaren 2. fasea eta dagokion kontratazio espedientearen eta aipatu egitasmoa gauzatu eta finantzatzeko Aldundiak Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udalekin sinatu beharreko lan-kidetzaren hitzarmenaren onarpenei lotutako dokumentazioaren harira.

Argibideak eskatzeko xedez Errekerimendua “ez da proiektuaren aurkakoa edo egitas-



Errekerimendua “ez da proiektuaren aurkakoa edo egitasmoa atzeratzeko”. Eduki batzuk argitzea xedez egin du Usurbilgo Udalak.

USURBILGO UDALA

“Usurbil zatiari dagokion kostuaren %100 Udalak finantzatzeko duela dio Aldundiak. “Behin betiko proiektu eta trazaturik ez dagoenean”, erantzun du Usurbilgo Udalak

moa atzeratzeko”, argitu nahi izan zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak udalbatzar hartan. Udalak jasotako dokumentazioko “eduki batzuk argitzea” baizik. Hiru aldeek (Aldundiak, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udalak) sinatu beharreko hitzarmenekoak hain zuzen.

Behin behineko irtenbidea finantzatzaren alde

Batetik, finantzazioari lotutako

paragrafo bat, “Usurbil zatiari dagokion kostuaren %100” Udalak finantzatzeko duela dioena, alkateak gogorarazi zuenez, “behin betiko proiektu eta trazaturik ez dagoenean”. Horren ordez, Udala bere gain hartzeko prest den konpromisoa idatziz jasotzea proposatzen da. “Usurbilgo Udala Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-78 (TE) Zapategi eremuko aldaketa puntualaren espediente izapidetzen ari da, zeinaren antolamenduak eragiten baitio Usurbil zatiari... Hori dela eta, eremuaren hirigintza-garapenaren ondorioz obra behin betiko egiten ez den arte, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du behin-behineko irtenbide bat gauzatzeko, bizikletentzako eta oinezkoentzako aurreikusitako bidearen

enborraren eta Lasarteko Adarraren arteko bide-zatiaren arteko lotura bermatzea”.

Behin behineko irtenbidea modu honetan gauzatzeko asmoa agertu du Udalak; “Geltoki kalean Michelingo lursail aldera dagoen espaloian bertan arraien margoketa eta seinale baten bidez bizikletentzako bidea ezartzea izango da oinezkoen eta bizikleten bateragarritasun izaerarekin”.

Behin-behineko irtenbide hau gauzatzeko konpromisoa hartzen du Udalak, baita Usurbil tarteko “behin-behineko obren kostuaren %100 finantzatzeko”. Udalbatzarrean EAJ-k lanon ardurara Foru Aldundiaren esku uztea proposatu zuen, udal gobernu taldeak planteaturikoarekiko desados agertzearekin batera. PSE-ko udal ordezkari Patxi Suarez desados agertu zen errekerimenduarekin, bere esanetan udalbatzarraren biharamunean gai honen bueltan biltzekoak zirelako udal eta foru ordezkariak.

Ekitaldi zikloa liburutegian

Izen ematea zabalik duten hiru ekitaldi antolatu ditu Sutegi udal liburutegiak kultur etxeko auditorioan, urriaren 24ko Liburutegien Egunaren bueltan:

■ Urriak 22, 19:00 Euskarazko literatura solasaldia: Joseba Larratzek marrazturiko “Joana Maiz” lanaren aurkezpena. Lana eskuragarri liburutegian. Bertaratzeko deitu 943 360 692 telefono zenbakira.

■ Urriak 27/29 18:00 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioak; 4-5 urtekoentzat hilaren 27an, 6 urtetik gorakoentzat hilaren 29an. Izen ematea aurrez usurbil-kultura.eus bidez.

“2017rako amaituta egon behar zuen”

“Lasarte-Txikiardi bidegorria behingoz eraikitzen hasiko direla albiste ona izango da” dio Eguzki Talde Ekologistak. “Baina albistea ezin dugu ontzat hartu, baldin eta kontuan hartzen badugu Lasarte-Txikiardi bidegorria 2017rako amaituta egon behar zela eta Donostia-Mutriku ibilbidea, berriz, 2021erako oso-oso aurreratua”, hala dio Eguzkik idatzi baten bidez.



“Planaren arabera, Donostia-Mutriku ibilbideak datorren urterako bukatzeaz egon behar zuen”, dio Eguzkik. “Alabaina, Lasarte eta Txikiardi bitarteko tartea ari gara orain. Atera kontuak”.

Tipi-tapa herria eta eskualdea ezagutuz

U surbilgo bazterrak eza-
gutzeko hitzordu anitz
iragarri dira asteota-
rako. Etxean bertan dugun on-
dare aberatsa balioan jarriko
dituzten txango interesgarri
ugari.

Harria Hitz, pizgarri berriekin

Udazkenerako ezustekoak iragarri zituzten antolatzaileek eta pizgarri berriekin bueltan dator Harria Hitz, herriko kultur altxorrek ezagutzea ahalbidetzen duten bisita gidatuak.

Urriak 10, larunbata:

Harria Hitz + Zirriborro

- 11:00 Usurbilgo frontoian.
- 11:05 Bisitaren hasiera.
- 12:00 Bisitaren amaiera.

Urriak 24, larunbata

- 11:00 Usurbilgo frontoian.
- 11:05 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean, Xabier Gantzarainek eta Ismael Manterolak gidatuta.
- 12:00 Amaiera.
- 16:00 TXXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita.
- Prezioa: 5 euro.
- Izen ematea: 688 818 017 info@kultour.pro harriahitz.eus
- 15 lagunentzako, gehienez ere.
- Antolatzailea: Udala.

“Urdaiaga ezagutuz”

“Inguruan zeuden zetak, burdinolak, eta baserrien historia ezagutzeaz gain, Irisasi-Andatza eremutik ibilbide zoragarri bat egiteko aukera izango da”, urriaren 18an. Igandez, goizeko



Urdaiaga ezagutzeko aukera izango da urriaren 18ko ibilaldian.

BEHEMENDI

“Irisasi-Andatza eremutik ibilbide zoragarri bat egiteko aukera izango da urriaren 18an”

9:30etan Santueneko plazatik abiatuta. 9 pertsonentzako lekua egongo da ibilaldian. Maskara jantzita eraman beharko da eta segurtasun tartea zainduta egingo da ibilbidea. Izen ematea eta informazio gehiago: donostialdea@behemendi.eus 656 705 243.

Irteera honen helburua etxean bertan ditugun bideak eta bideon bueltako paisaiak, ondarea ezagutu eta duten balioa ematea litzateke, bai etxean, baita gure artera bisitan datozenen artean. Agian, bertakoek errazago ezagutuko dituzte mendi bide eta bazterrak. Gure artera datozenek

ez. Horretarako etorkizuneko erronka marrazten dute; bideok seinalezatatu eta mantentzea. Momentuz, asteotarako bide hau urratzen hasteko proba moduan ibilaldiok antolatu dituzte eskualdean, hurrenkerara alfabetikoan; Andoainean, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan, eta hilaren 18an, ziklo amaiera Usurbilen, Urdaiagan.

Ibilbideen egun birtuala Buruntzaldean

Eskualdeko bidezidorrak eza-
gutzeko aukera izango dugu urriaren 25ean. Bizi dugun osasun krisialdira egokitua izango da aurten. “Partehartzea online ziurtatuko da, nahiz eta ibilbideak oinez burutuko diren”. Sariak ere iragarri ditu antolakuntzak. Informazio gehiagorako: kirolak.buruntzaldea.eus

Yoga Zubietan

Astelehenetan 18:00-19:30 artean Kaxkapen. Izen emateko deitu telefono zenbaki honetara: 647 587 258.

Izen ematea Futbol Eskolan

Futbol Eskolak deituta, urriaren 7an eta 9an, 18:00-19:30 artean Haranen. Urriaren 23an abiatuko dituzte entrenamendu saioak.

Kzgunea goizez zabalik

9:00-13:00 artean zabalduko dute. Bertaratu aurretik hitzordua eskatu. Informazio gehiagorako: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

ETXEBIZITZA**Salgai**

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943916182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688779465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira.

Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke:

[943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus](mailto:943360321/erredakzioa@noaua.eus)

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696014585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620708265 / 686143786.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626735354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616235366.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuak hona deitu: 629951931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680483164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakordeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699760873

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Inte-

resatuak deitu: 631489128.

Astelehenerdik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetara eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaiz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko.

**Zorionak Aiora!**

Pasa den urriaren 7an 5 urte bete zenituen.

Muxuak kiloka familiakoen partez. Maite zaitugu!

**Zorionak Alain!**

Urriaren 9an, 9 urte! muxu haundi bat

eta ondo ondo ospatu!

OHARRA: 2020ko urriaren 16an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharririk edo zorion agurrik baduzue, urriaren 12a baino lehen helarazi.

Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabal zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. Telefono zenbakia: 666097595.

BESTELAKOAK

9 urteko gaztetxo batentzako bigarren eskuko saxofoi bat gustora erosiko genuke. Etxean erabilerarik gabe badaukazu

deitu: 679478164

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nurria. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio

gehiago: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirrinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarina Japoniarra (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den alabarentzat. 627184674.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehene-tik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Heriotzak

Jose Francisco

Goenaga

Marticoarena

Irailren 30ean

hil zen,

71 urterekin

Goardiako farmaziak

Osteguna 08 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

Larunbata 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Urriak 08 - Urriak 18

Osteguna 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

URRUTIA-MARTIN-HERNANI

Etxeberri auzoa, 1. Florida

943 55 77 38

Agenda urria

08 osteguna

- Emakumeen Etxea definitzeko parte-hartze prozesuaren hasiera 18:00etan.
- 'Guk Zubietan Zer' parte-hartze prozesuaren aurkezpena 18:30ean Zubietako frontoian.

09 ostirala

- "5G teknologia, osasuna eta ingurumena" hitzaldia 19:00etan Potxoenean.

10 larunbata

- Harria Hitz bisita gidatua. 11:00etan frontoitik abiatuta (ikus 19. or).
- Esteban Elizondoren organo kontzertua. 19:00etan Salbatore elizan.

Ostiral honetan 5Gari buruzko hitzaldia Potxoenean

Uhin elektromagnetikoen giza-banakoengan nahiz ingurumenean eragin ditzaketen kalteak ezagutzeko aukera izango da ostiral honetan Potxoenean. "5G teknologia, osasuna eta ingurumena" izeneko hitzaldia eskainiko du BiziBide taldeak. Hitzaldira perfumerik gabe eta mugikorrek itzalita edo "hegaldi moduan" jarrita joatea eskatzen dute antolatzaileek.



Aitziber Elortza izango da hizlarietako bat. Aurreko astean solaskide izan genuen NOAUAIn.

Urriak 9 ostirala

- Arratsaldeko 19:00etan, Potxoenean.
- Hizlariak: Aitziber Elortza eta Miren Mendiboure.

- Antolatzailea: BiziBide.

- Izen ematea: doakoa da. Sarra-kopurua mugatua da. Izen ematea, usurbilkultura.eus bidez.

Ziortza, ikasturte hasieran

Ziortza gazte elkartearen ikasturtearen parte hartzeko asmoa dutenek email bat helarazi behar dute izen abizenak eta ikasketa maila adierazita, ziortzage@gmail.com helbidera, "eta berehala bidaliko dizugu baimen-orria". Baimen orria inprimatua, beteta eta sinatuta eraman beharko da lehen saiora, "bestela ezingo baituzue parte hartu". Saioen egutegia:

- DBH1 eta DBH3, hilero 3. ostiraletan.
- DBH2 eta DBH4, hilero 4. ostiraletan.

Larunbat honetan, organo kontzertua

Esteban Elizondo Iriarteren emanaldiaz gozatzeko aukera izango da larunbat honetan, urriak 10, 19:00etatik aurrera Salbatore Elizan.

Organoaren Lagunak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Usurbilgo Udalak eta Salbatore Parrokiak elkarlanean antolaturiko kontzerturako sarrera doakoa izango da baina txartel kopurua mugatua. Sarrerak egunean bertan eskuratu ahaliko dira.

Datozenak

Datorren astean

Sutegin: 'Zaldi urdina' antzezlan

Urriak 17 larunbata

- 20:00etan Sutegin.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro aldez aurretik, 10 euro egun berean (lehiatilan).
- Sinopsia: Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa delakoan...

Zumarte Musika

Eskolaren inaugurazioa

Garbitze eta hornitze lanak amaituta, gune berritua erabiltzen hasteko moduan izango dute Orbeldi Dantza Taldeak eta Zumarte Musika Eskolak. Birgaitze eta handitze lanen emaitza bertatik bertara ezagutzeko bisitak antolatu ditu Usurbilgo Udalak herri-tarrentzat urriaren 24rako.

Urriak 24, larunbata

- 11:00/11:30/12:00 Bisitak.
- 12:30 Inaugurazio ekitaldia.
- Izen ematea: hezkontza@usurbil.eus
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patricia
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

ARRATZ

zabaleta anaiak



31 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

BAZKIDEEN TXOKOA



Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatuta
Sarrerak: Lizardin 8 € aldez aurretik,
10€ egun berean (leihatilan).

**Urriak 17,
larunbata
20.00etan Sutegin**

**'Zaldi urdina'
antzezlan**

noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu urriaren 15ean



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euzkainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Ataldu pol. ataldu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio URRUZOLA
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntopax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOKHUNERO ALTZARIARIK

Bordaberni kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39